

LEHENENGO ZAINZA TOPAKETA EGIN DA ANOETAN, “ANOETA, ELKAR ZAINDUZ” PROZESUAREN BAITAN

Atzo arratsaldean egin zen Anoetako lehenengo Zaintza Topaketa. Azken hilabeteetan Anoetan egin den zaintzaren inguruko lanketa-prozesuaren barruan kokatzen da, eta helburu nagusi gisa izan ditu orain arte egindako lanketaren emaitzak partekatzea eta herrian identifikatutako erronken inguruko hausnarketa abiatzea, hurrengo faseari begira.

Zaintza eraldatzeko prozesua: antolaketa.

Zaintza pertsona batek beste pertsona batez arduratu eta hari arreta eta laguntza eskaintzean datza, gizabanakoaren ongizatearen alde egitea da. Finean, herritar orok behar duen laguntza da eta udalak abian jarri duen prozesu honetan herritarren elkarlana eta parte hartzea ezinbestekoa da zaintzaren inguruan hitz egin eta hausnartzeko.

Prozesuan bi fasetan egituratu da.

Lehen fasearen helburua izan da herriko zaintza-errealitatea sakon ezagutzea. Horretarako, hiru lan-ildo nagusi uztartu dira:

1. **Analisi soziodemografikoa**, herriaren ezaugarri estrukturalak eta sozioekonomikoen analisia egin da; biztanleriaren bilakaera eta dentsitatea, adina, sexua, mendetasun egoerak etab-en azterketa egin da. Ondorioz, datuetan oinarrituz, zaintza ekimena martxan jartzeko abiapuntua izan da.
2. **Diagnostiko kualitatiboa**, herritarren ikuspegi zabala jasotzeko aukera ematen dute diagnostikoek, beraz, herritarrei zuzenduriko galdetegiak zabaldu da eta elkarriketa sakonak egin dira herritar eta eragile ezberdinetako kideei.
3. **Esperientzia inspiragarrien azterketa**, inguruko eta beste herri batzuetan garatzen ari dira ekimenen berri ezagutzeko aukera izan dugu eta era berean ikasteko aukera eman du.

Antolaketa mailan, prozesuak hiru espazio nagusi ditu:

1. **Talde Motorra**, prozesuaren gidaritza, antolaketa eta koordinazioa bermatzeko, Anoetako Udalak eta Zabalduz kooperatibak osatua.
2. **Zaintza Mahaia**, zaintzaren esparruarekin lotura duten eragile eta pertsonen ordezkartza zabalarekin (zaintzaileak, zainduak, ikuspegi komunitarioa, familia eta profesionalen ikuspegia, esfera publikoa eta pribatua).
3. **Herri Topaketak**, herritarren parte-hartze zuzena ahalbidetzeko gunea, atzokoa horren lehen adibidea izanik.

Atzoko topaketak aukera eman zuen orain arte egindako lanketaren berri emateko eta prozesuaren hurrengo urratsak kokatzeko.

Diagnostikoa: datu soziodemografikoak eta joera nagusiak.

Egindako analisi soziodemografikoak hainbat datu esanguratsu jarri ditu mahai gainean.

Anoetako biztanleria %22 hazi da 2001etik, hazkunde horren zati handi bat kanpotik etorritako pertsonen ekarpenari esker gertatu da. Aldi berean, herria azkar zahartzen ari da: gaur egun, 65 urtetik gorakoak biztanleen %21 dira, eta kopuru hori bikoiztu egin da azken urteetan.

Joera horren ondorioz, 80 urtetik gorako adin-taldea izango da datozen urteetan gehien haziko dena. Datu kezagarrienetako bat da talde horretako pertsonen heren batek mendekotasun mailaren bat aitortua duela.

Biztanleria-egiturari dagokionez, ondorengo joerak identifikatu dira:

1. Belaunaldi-erreleboa ahultzen ari da: gaur egun adingabeen eta adinekoen proportzioa antzekoa da.
2. Hazkunde begetatiboa ia nulua da, jaiotza kopuru baxuaren ondorioz.
3. Bizi-itzaropena handitzen ari da, bereziki gizonen artean.
4. Oro har, Anoetako egoera EAEko, Gipuzkoako eta Tolosaldeko batezbestekoen parekoa edo zertxobait hobea da aldagai askotan.

Zahartze prozesuarekin batera, mendekotasun eta desgaitasun egoerek gora egiten dute. 80 urtetik gorakoen artean, desgaitasuna duten pertsonen portzentajea %40tik gorakoa da, bai emakumeen bai gizonen artean. Datu horietan oinarrituz, etorkizunean zaintzak behar dituzten pertsonak baino zaintzeko pertsona gutxiago egongo dira eta etorkizunean pertsonarengan eragin zuzena izango du.

Diagnostiko kualitatiboa: herritarren ahotsa

Datu estatistikoekin batera, elkarrizketen bidez jasotako informazioak agerian utzi du zaintzaren eguneroko errealitatea.

Elkarrizketek erakutsi dute:

1. Zaintza herritarren egunerokoaren erdigunean dagoela, baina behar asko ezkutuan geratzen direla.
2. Laguntza eskatzea kostatu egiten dela askotan.
3. Zaintza-eredua oraindik ere oso familiarra eta feminizatua dela; zaintza-karga nagusiki emakumeen gainerortzenda, etahorreknekea, desgastefisiko eta emozionala eragiten du.
4. Zerbitzu publikoak eta informazioa zatikatuak eta konplexuak direla, eta administrazioa urrun edo motel gisa hautematen dela.
5. Komunitateak zaintzarako potentzial handia duela, baina egitura eta koordinazio handiagoa behar direla; askotan antolaketa lana pertsona berberen gain geratzen da.
6. Adostasun zabala dago zaintza-eredu publiko-komunitario baten alde, eta Zaintza Sareak baliabideak eta erantzukizunak partekatzeko tresna egoki gisa ikusten da.

Zaintza Mahaian identifikatutako zazpi erronka nagusiak

Diagnostikohorretatik abiatuta, Zaintza Mahaian zazpi erronka nagusi identifikatu ditugu herri mailan:

1. **Zaintzaren ardura banaketa:** zaintza oraindik pertsona gutxi batzuen gain erortzen da, eta beharrezkoa da ardura hori komunitate osoarekin partekatzea, administrazioa eta auzo-sareak ere inplikatu.
2. **Zaintzaren feminizazioa:** zaintza-lanak, ordainduak zein doakoak, gehienbat emakumeek egiten dituzte, eta horrek desberdintasunak eta gainkarga sortzen ditu.
3. **Familia txikiak eta indibidualizazioa:** familia-sareak txikitu eta sakabanatu egin dira, eta horrek bakardade-arriskua handitzen du, bereziki adineko eta egoera zailletan dauden pertsonengan.
4. **Adinekoentzako aukera garestiak:** egoitzak askotan aukera bakarra bihurtzen dira, eta ez diete beti pertsonen beharrei edo nahiei erantzuten.
5. **Babes publikoa eta koordinazioa:** zaintzarekin lotutako zerbitzu asko erakunde desberdinen esku daude, eta sistema konplexua eta zatikatua da; koordinazioa eta informazioaren argitasuna indartu behar dira.
6. **Zaintza-ereduaren aldaketa:** egungo eredu hotz eta teknikoegia dela sentitzea, eta harremanetan oinarritutako, pertsonaren erritmoa eta historia errespetatzen dituen zaintza behar da.

7. **Familia gutxiago eta baliabide gehiago:** gizartea zahartzen ari da eta familia-sareak txikitzen ari dira; ondorioz, ezin da zaintza etorkizunean familiaren gain soilik utzi.

Atzoko topaketan, erronka horien inguruko lanketa partekatua egin zen, talde txikitik, herritarrek identifikatutako gaiak kontrastatzeko eta sakontzeko helburuarekin. Erronkak lehentasunen arabera ordenatzeko lana bigarren Zaintza Topaketan egingo da, MARTXOAK 10ean.

Aurrera begirako proposamen posibleak

Prozesuaren baitan etorkizunera begira Anoeta herrian zaintza plana eratzeko, ekintzak zehazteko eta pertsona ororen ongizatea bermatzeko herritarren parte hartzea eta elkarlana ezinbestekoa da.

Hurrengo urratsa: Zaintza Plana eraikitzea

Hurrengo fasean, Zaintza Plana landuko da, guztion artean, herriak berak erabakiko duen norabidean. Helburua da bide-orri partekatua eta bideragarria adostea, Anoetan zaintza eredu bidezkoago, koordinatuago eta gizatiarrago bat garatzeko.

Anoetako Udalak azpimarratu nahi du prozesu honek herritarren inplikazioa behar duela, eta lanketa hau bereziki interesgarria eta beharrezkoa dela herriarentzat. Horregatik, dei egiten die herritar guztiei datozen urratsetan ere parte hartzera, Anoetako zaintza-ereduaren etorkizuna elkarrekin lantzen jarraitzeko.

Bigarren Zaintza Topaketa **MARTXOAREN 10ean** egingo da. Gorde data.